

ZERBITZUEN KATALOGOA

Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Liburutegi Zerbitzuak aholkularitza teknikoa ematen die Irakurketa Publikoko Sareko liburutegiei (EIPS). Gainera, Euskadiko liburutegi nazionala ezean, Euskadiko Liburutegiei buruzko Legearen xedapen iragankorren agertzen den bezala, erakunde horri dagozkion funtzio batzuk betetzen ditu.

IZENDAPENA	EZAUGARRIA Zer da? Zertan datza?	HARTZAILEA Nori zuzenduta dago?
Liburubila (EIPSren katalogo bibliografiko guztiak eta eLiburutegia biltzen dituen datu-basea)	Euskadiko liburutegi publiko guztien datu-base bibliografikoa da, baita Lege Gordailuko funtsena eta eLiburutegia-rena ere, herritarrei informazioa eskuratzen laguntzeko. Zerbitzu honek milaka baliabide bibliografiko, musikal eta abar bilatzea, eskuratzea eta deskubritzea aurreikusten du, baita liburu digitalak edo online filmak maileguan hartzea ere. Azken berriak ikus daitezke, dokumentuak erreserbatu eta berri, zerrendak sortu, etab. https://www.liburubila.euskadi.eus	EIPSk o bazkideei, eta orokorrean Herritarrei.
Katalogobateratua (EIPSk o katalogo bibliografiko guztiak biltzen dituen datu-basea)	Liburutegi publiko guztien informazio bibliografikoa duen datu-basea da, Lege Gordailuko funtsak barne. Zerbitzu horrek ahalbidetzen du milaka errekurtso bibliografiko, musikal etab.-en bilaketa, sarbidea eta deskubritzea. Horrekin batera, aukera zabala eskaintzen du liburu digitalak mailegatzeko eta filmak online ikusteko. www.euskadi.eus/katalogobateratua	EIPSko bazkideei, eta orokorrean Herritarrei.
Bilgunea (Euskadiko liburutegien katalogo kolektiboa)	Euskadiko liburutegien osatutako katalogo kolektiboa. Bilaketa bakarraren bidez EIPSko eta beste liburutegietako (publikoak zein pribatuak, Euskadiko Autonomia Elkartekoak: foru aldundietakoak, espezializatuak, unibertsitatetakoak, etab.) Urtean behin eguneratzen da. www.katalogoak.euskadi.net/bilgunea	- Herritarrei. - Liburuzainei.
eLiburutegia (mailegu digitalerako zerbitzua)	Eduki digitalak mailegatzeko zerbitzua. Katalogo bat da, gailu mugikorren bidez deskargatu eta irakur daitezkeen epub formatuko liburuek osatzen dutena baita gure gailuetan edo Internet bidezko telebistan ikus daitezkeen 14.000 film baino gehiago ere. www.eliburutegia.euskadi.eus/	EIPSko bazkideei.

Lege Gordailua	Erakunde juridiko bat da eta bere helburuak honakoak dira: biltzea, biltegiatzea eta kontserbatzea. Hori guztia, euskal kulturaren ondare bibliografikoa, soinuduna, ikusizkoa, ikus-entzunezkoa eta digitala gordetzeko eta hedatzeko asmoz. Helburu horrekin jasotzen dira edozein euskarri-motatan erreproduzitutako argitalpenak; edozein prozeduraren bidez banatzen direnak edo publikoki komunikatzen direnak, horiek doakoak edo ordaindutakoak direlarik ere.	Herritarrei.
Euskal bibliografia	Euskal kulturarekin lotuta dauden argitalpen eta egileen zerrenda.	- Herritarrei. - Liburutegiei. - Ikertzaileei.
Aubi (autoritate elebidunen katalogoa)	Autoritateen erregistroen datu-base elebiduna: egilea, entitatea, kongresua, izenburua, gaia eta leku izenak, eta abar. www.katalogoak.euskadi.net/aubi	Liburuzainei.
Erregistro bibliografikoen eta autoritateen katalogazioa	Erregistro bibliografikoen eta egileen katalogazioa (emakume idazleak, musikariak, erakundeak, etab.) Dokumentuak (liburuak, CDak, aldizkariak, etab.) erregistratzeko eta sailkatzeko prozesu teknikoak, nazioarteko arauen arabera. Zalantzak argitu, katalogoa zuzendu eta araztu Prestakuntza-ikastaroak antolatu.	- Liburuzainei. - EIPSeko bazkideei. - Herritarrei – informaziorako irispidea.
Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen laguntza teknikoa.	Liburutegien eta EIPSeko erabiltzaileen euskarri teknikoa, funtzionamenduari buruzko zalantzak argitzea, erabiltzaileen alta (profesionalak) Absysneten, proiektuak gauzatzeko laguntza (liburutegi berriak, maileguen kudeaketari buruzko zalantzak, eta abar)	Orokorrean, liburuzainei. Eta, noizbehinka, Zuzenean zerbitzuaren bidez harremanetan jartzen diren herritarrei.
Laguntzak eta diru-laguntzak	Gaur egun existitzen diren laguntzak eta diru-laguntzen kudeaketa eta tramitazioa (Funtsak berritu edo handitu, Irakurketa sustatu eta liburutegien zerbitzuak erabili, eta Teknologia berriak ezarri eta/edo garatu). Liburutegiek eskaera telematikoki behar den bezala aurkezteko beharrezkoa den informazioa eman eta zabaldu. Laguntzak	- Euskal Autonomia Erkidegoko udalei. - Toki-erakunde eskudunei eta udal-liburutegi publikoen arloko zereginak esleituta dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udal-erakundeei.

Estatistikak	EIPSkoliburutegien beharrezko informazio estatistikoa bildu Kultura Ministerioari bidaltzeko. Liburutegiei behar duten laguntza guztia eman urteko galdetegia ondo betetzeko.	Liburuzainei.
Blogen plataforma	Liburutegiei ahalbidetzen zaie blog bat edukitzea, bakoitzak beren edukiak izateko asmoz eta herri bakoitzeko liburutegi zerbitzuak zabaltzeko asmoz.	- Liburuzainei. EIPSkoliburuzainei. - Erabiltzaileei.
Sareko prestakuntza	Ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak eta bilerak antolatu ezagupenak eguneratzeko asmoz eta liburutegien praktikak hobetzeko asmoz. Horrekin batera, EIPSkofuntzionamendurekin aurrera egiteko asmoz, herritarrentzako zerbitzua hobetzeko helburuarekin.	Liburuzainei.
Kontratuak eta kudeaketa enkarguak	Behar diren hainbat kontratu eta enkargu egin eta kudeatu, bai martxan dauden aplikazioen mantenturako bai jarduera edo zerbitzu berriak sortzeko.	EIPSn funtzionamendu egokirako
Hitzarmenak (Pabi, Bilgunea, etab.)	Beste erakundeekin beharrezkoak diren hitzarmenak egin eta kudeatu liburutegien arteko lankidetzazustatzeko.	Kultura erakundeek.
Liburutegien direktorioa	EIPSen parte hartzen dituen liburutegien zerrenda osatu eta mantendu datu garrantzitsuenekin: kokapena, eskaintzen diren zerbitzuak, ordutegiak, etab. Direktorioa	- Liburutegiei. - EIPSkoliburuzainei. - Kultura eragileei.
Zerbitzuaren web orrialdea	Liburutegien Zerbitzua eta bere jarduera nagusiak ezagutzeko beharrezkoa den informazioa jasotzen den lekua da. Era berean, informazioa eskainiko du EIPSkoliburutegi ezberdinek bere lana burutu dezaten. Web orria	- Liburuzainei. - Herritarrei
Topaleku bloga	Liburutegien Zerbitzuko komunikazio kanala da. Horren bitartez, EIPSn parte hartzen duten liburutegi guztiei informazio garrantzitsua edo interesekoa bidaltzen zaie. http://liburutegiak.euskadi.eus/topaleku	EIPSkoliburuzainei.
Urteko buletina	EIPSkoliburutegietan eskainitako zerbitzuei eta jasotako erabilpen adierazleei buruzko informazio garrantzitsuena zabaltzeko argitalpena da. Urtero argitaratzen da. Liburutegiak	Liburutegietako langileei. Kultura eragileei.
Sare sozialak (Facebook, Twitter, Youtube, etab.)	Berri nagusien eta liburutegi zerbitzuen zabalkundea. Horren bidez, EIPSkoliburuzainei eta liburutegietako langileekin interakzioa lortzen da.	- Liburutegien profesionalak. - EIPSn erabiltzaileei. - Herritarrei.